

TABAKALERA



# EGONALDI DEIALDIA: PROIEKTU ARTISTIKOA

KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA

CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL  
CENTER OF  
CONTEMPORARY  
CULTURE

[tabakalera.eu](http://tabakalera.eu)



## **1. AURKEZPENA**

Tabakalerak, sorkuntzarako gunea den aldetik, egonaldi-programa bat du, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa honen helburu nagusia arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Programa honek, Tabakalerak dituen beste batzuek bezala, espazio bat sortu nahi du eragileak eta haien proiektuak elkarren ondoan garatu daitezen, egoiliarren eta eragile gonbidatuen artean lankidetzak sortzeko giroa eta aukera bultzatzeko helburuz.

## **2. XEDEA**

Deialdi honen xedea da egonaldi bat eskaintzea arte-proiektuen ekoizpenerako, Deialdiak izaera desberdinetako proiektuak ditu helburu, honen arte diziplina edo formatua kontutan hartu gabe.

Deialdian parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomi Erkidegoan, hemendik aurrera EAE, bizi diren artista edo eragile kulturalak, bai eta estatukoak eta atzerritarrak ere. Aurkeztutako proiektu guztietatik lau proposamen aukeratuko dira; hauetatik bi EAEn bizi diren artistak izango dira eta bi EAetik kanpo bizi direnak.

Egonaldiak lau eta hamabi aste arteko iraupena izango du, 6. klausulan adierazitakoaren arabera, eta arte-proiektua garatzeko lekua, testuingurua eta denbora eskainiko ditu.

Egonaldia, 2018ko otsaila eta ekaina bitartean edo/eta iraila eta Abendua bitartean gauzatuko da.

## **3. HAUTAGAIK / PARTE-HARTZAILEAK**

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo soilik arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko, EAEko



biztanleak, estatukoak edo nazioartekoak, dela eremu horretan jarduten direlako, dela sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotelako.

Halaber, hainbat pertsona fisiko edo juridiko deialdiari, batera, aurkeztu ahal izango dute, haien artean erlazio formalizaziorik eskatu gabe. Kasu honetan 5. klausulako azken paragrafoan jarritakoa eman ahal izango da.

#### **4. HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK**

Proiektuak baloratzeko batzorde misto bat osatuko du Tabakalerak, sektoreko profesionalak eta berezko pertsonekin. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- ⑩ Berrikuntza eta originaltasuna.
- ⑩ Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- ⑩ Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak/ek bere/n aldetik nahiz taldeko gainerako kideekin batera orain arte garatutako ibilbidearekin.
- ⑩ Bideragarritasuna eta Tabakalerak dituen bitarteko eta lan-espazioetara egokitzea.
- ⑩ Tabakalerako egoiliar programarekin eta lekuko testuinguruko jarduera artistikoarekin joan-etorriko bideak sortzeko gaitasuna.

Komisioak deialdia hutsik jo ahal izango du aurkeztutako proiektuetariko bakar batek ere ez badu biltzen meritua nahikorik egonadira. Era berean, egonaldi honetarako zuzendutako baliabideak beste egonaldi mota batetarako edo eta Tabakalera garatzen den beste ekitaldi batetarako esleitu ahal izango ditu.

#### **5. ZUZKIDURA**

Egonaldia Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo da. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu:

- I. Bidaia eta ostatua:
  - I.1 EAEtik kanpo bizi direnentzat:
    - Joan-etorriko bidai bat bere ohizko bizilekutik edo lekutik unean dagoen tokitik.
    - Gela bikoitza, bainugela eta lanerako txoko batekin wifiarekin; sukaldea eta egongela partekatutak.
  - I.2. EAE-n bizi direnentzat:



- Donostia edo ingurutik kanpo bizi bada, ostatua ere izan ahalko du, aurreko puntuan aipatutako ezaugarri berdinekin, edo/eta 500€ko gehieneko kopurua hilabetero, garraiorako.
2. 1.000€ egonaldiko hilabete bakoitzeko, dieta eta mantenurako.
  3. Asegurua medikua, artista edo eragilea atzerritarra den kasuan.
  4. Lanerako espazio bat Tabakaleraren ekoizpen-gunean, oinarritzko behar guztiekin: argia, korronte hartuneak, proiektu bakoitzerako oinarritzko altzariak.
  5. Office-rako eta gune komunetarako sarbidea.
  6. Tabakaleraren sorkuntza-liburutegi espezializatuko funtsetarako sarbidea.
  7. Irudi eta soinua edizioetara eta plato/praktika eszenikoetarako espaziora sarbidea.
  8. Baliabide teknikoak eta Tabakalerako lan-taldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.
  9. Laguntza kontzeptuala proiektua garatzeko, eta laguntza inguruko eragile eta proiektuak ezagutzeko, egoiliarak hala eskatuz gero.
  10. Laguntza ekonomiko gehigarria, 2.500€ gehienez, ekoizpen-prozesuari dagozkion gastuak estaltzeko asmoz, nahitaez aipaturiko ekoizpenera zuzenduko direnak. Ekipamendu teknologikoen erosketak ez dira onartuak izango. Laguntza ekonomikoa, Tabakalerako ordezkari baten bitartez kudeatuko da.

Aukeratutako proiektua kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisiko edo juridikok, elkarren arteko harremanak formalizatzeko 3. klausulako bigarren lerrokadan adierazitako moduak bete beharrik izan gabe), adierazitako prestazioak emango zaizkio dela kolektiboak berak izendatutako pertsona fisikoari, dela kolektiboak eskatuta eta Tabakalerak diskrezioz erabakita, erresidentziaren prestazio zenbatekoaren kuantifikazio bitartez (posible den neurrian) eta hura esleituta kolektiboko kide bati, batzuei edo guztiei, esandako prestazioetakoren bat, zenbateko baliokide osoarekin.

## **6. EGONALDIAREN IRAUPENA ETA GARAPENA**

Egonaldiak lau eta hamabi aste arteko iraupena izango du, 2018 otsaila eta ekaina bitartean, edo/eta iraila eta Abendua bitartean garatuko da. Batzordearekin batera adostuko da egonaldiaren iraupen zehatza, Tabakalerak bere programazioan barruan dituen aukera eta konpromisoen arabera.



## 7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- ⑩ Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- ⑩ Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak egonaldia eta emandako laguntzak bertan behera uztea ekar lezake.
- ⑩ Egonaldia bera eta haren inguruan sortutako jarduerak Tabakalerak egonaldi-programaren eta lan-espazioak lagatzeko programaren inguruan garatzen duen programazioan sartu ahal izango dira.
- ⑩ Tabakaleran izan eta gero, beren egonaldiari buruzko memoria bana aurkeztu beharko dute egoiliarrek.
- ⑩ Egonaldia obra edo argitalpenen bat ekoizteko erabiliz gero, Tabakaleraren izena jarri beharko da kredituetan.

## 8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko epea 2017ko apirilaren 3tik maiatzaren 30eko 23:59ak [UTC+2] arte egongo da zabalik. Deialdien emaitza, 2017ko uztailaren 15ean jakinaraziko da. Hautagaiak astebeteko epea izango du egonaldiaren onarpena egiteko.

Izen-ematea Tabakalerako webgunearen bitartez egitea beharrezkoa da; horretarako, izen-emate orria bete eta jarraian zehazten den hurrenkeran, hurrengoko dokumentazioa atxikitu beharko da:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiek zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakalerako egoiliar diren bitartean (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
4. Proiektu garapenerako gorabeherako aurrekontua, bai eta premia guztien aurreikuspena ere.
5. Egoiliar den aldirako aurreikusitako lan-egutegia.
6. Egonaldirako denboraldi egokiena, lehen eta bigarren aukerak.
7. Sozietatearen CVa eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).



Dokumentazio guztia PDF formatuko (gehienez 10 mega, 10 orrialde) dokumentu baten bitartez helaraziko da; dokumentuaren izena modu honetara adierazi beharko da: Izena\_abizena\_modalitatea; adibidez: martin\_bilbao\_arte\_proiektua.

Bestetik, helarazten den dokumentazioa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egongo da idatzita. Euskaraz edo gaztelaniaz baldin bada, nahitaez laburpen bat atxikituko da ingelesez.

Aukeratutako hautagaiek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte 10 eguneko epean, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontatzen hasita:

- ⑩ NANaren, IFKren edo pasaportearen kopia.
- ⑩ Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 60. artikuluan deskribatutako egoeraren batean sartuta ez egotearen adierazpena. Dokumentu hau Tabakalerako web-orritik deskargatu daiteke, eta modalitate bakoitzari dagokion deialdian aurkituko da. Kolektiboen kasuan, adierazpen horrek hautagai guztiei buruzkoa izan beharko du.

## 9. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatu behar dute; ildo berean, Tabakalerak modu baketsuan erabili ahal izango dituela bermatuko dute, eta berme hori beteko ez balute, Tabakalerak zuzenean edo zeharka jasan ditzakeen kalte edota galeren erantzukizunetik salbuesten dute esanbidez Tabakalera.

Hautatutako pertsonak Tabakalerari lagako dizkio proiektu osoari edo proiektuko elementuen zati bati nahiz proiektuaren garapenari dagozkion ustiapen- eta irudi-eskubideak, legez baimendutako gehieneko aldirako, mundu osoan, Tabakaleraren jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo liburuxkak paperean edo digitalean argitaratzeko edo jardueraren sustapenerako, baina merkataritza-jarduerak esanbidez alde batera utzita.

Aukeratutakoak Tabakalerari bere izena deialdi honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan erabiltzeko baimena emango dio, esanbidez.



## 10. DATUAK BABESTEIA

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Tabakaleraren fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau, deialdiaren administrazio-kudeaketako jardunak, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko, eta parte-hartzaileek onartu egin behar dute beren datuak fitxategi horretan sartzea. Horri dagokionez, helbidea honako hau izango da: Tabakalera, Andere zigarrogileak, 1, Donostia. Parte-hartzaileak bere laguntzailearen baten datu pertsonalak ematen baditu, datuak Tabakalerari xede bererako jakinarazteko haren baimena izan beharko du.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak posta elektronikoa bidez baliatu behar dira; mezu elektronikoa sortzaileak@tabakalera.eu bidali, gaia honako hau duela: “sartzeko baimenak” mezuarekin batera datuen titularrak sinatutako gutun bat ere aurkeztu beharko da, eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazteaz gain, NANaren edo antzeko beste dokumentu baten kopia ere bidali behar da.

## 11. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek Tabakalerako gunetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak, eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenerako erabiltzearen; era berean, erabilera hori baimenduko dute.

Hori guztia ohorerako eskubidearen aurkako erabilera edo aplikazio guztiak alde batera utzita, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako moduan. Eremu horretakoa ez den beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratzen da.

## 12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +:

[sortzaileak@tabakalera.eu](mailto:sortzaileak@tabakalera.eu)

[www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu)